

Julio Caro Barojaren inguruan, bizipen oroigarriak

Euskalerrriaren Adiskideen Elkartearen Ohorezko Lehendakaria den Julio Caro Barojaren laurogeigarren urtebetetzea dela eta, orri hauetan eskaintzen zaion omenaldi honetan partaide izatea benetan atsegina zait. Bidezkoa eta legezkoa omenaldi hau, gizon hain apala eta jakintsua dugun Julio Caro Barojari.

Adiskidetasunaren barnean egindako aginduari erantzun ona emanez, lantxo hau *euskaraz eta nire euskaraz* egiten saiatuko naiz. Aginpean mugitzea ez dut behin ere gogokoa izan, baina J. Caro Barojari diodan begirapen onarengatik eta, arestian esan bezala, agintzailearekin dudan adiskidetasunarengatik, aurrera egingo dut.

Ez naiz idatzi zaharra Julio Caro Barojaz, bere kultur ekintza batzuk aipatuaz, eta egun ez dut errepikatuko. Ez noa ba Julio Caro Barojaren lan interesgarri eta ugarien gorazarrea egitera. Gaurko egiteko honetan, adiskide eta maisu dudan aldetik mintzatuko naiz On Julioz, lehen idatzi ez den edo gutxi idatzi den zerbait adierazten saiatuaz, eta honetan zerbait lortzen baldin badut, nire helburua betea izango da.

Nire kultura alorreko ekintzetan Jose Migel Barandiaran eta Julio Caro Baroja hurbil izandu ditut. Hirurogeiko hamarkadaz geroztik, nire maisu berezia eta maitea izan nuen On Jose Migel Barandiaranekiko adiskidetasuna sendotuaz joan zen, etengabeko harremanetan. Ekitaldi ugari elkarrekin eginak gara: mahaiburuak, liburu-aurkezpenak, Eusko Ikaskuntzako bilerak, ezin konta ahala hitzazpertu gu bion etxeetan eta abar luzea.

Ez naiz oroitzen noiz jaio zen nire adiskidetasuna Julio Caro Barojarekin, baina bai non sortua den, Don Pioz neukan harrimenak nire urratsak Itzeara eramanez ninduen eta. Lehendik irakurriak nituen Julio Caroren lan interesgarriak, nire etnologia eta historia ikerketarako benetan baliagarri eta beharrezkoak izan direnak.

Honela ba, bi gizon ospetsu hauen inguruan mugitu naiz gehienbat, beraien irakaspenak nire jakin-nahiaren aberasgarri zirela. Lerro hauek aurkezpen antzera direla, jarrai dezagun.

Denok dakigu Don Pio eta On Jose Migelek izan zituzten harremanen berri, eta harreman hauen fruitu emankorra nola izan zen Julio Caro Baroja Ataungo jakintsuaren ikasle izatea; ikasle, bere ibilbidean barrena geroago irakasle jakintsu izango zena.

Gauza harrigarria da ordea, On Jose Migelek Itzea etxea ez ezagutzea, Don Pioren dei eta gonbidapenei erantzunik ez ematea. Gauzak honela, behin batean, bazkalondoko bateko berriketean, honela esan zidan Julio Caro Barojak: «¿Por qué no le llevas a Don José Miguel a Itzea?, no ha estado nunca». Hau 1975. urtean zen eta berehala, On Jose Migelekin Itzeako atea igaro genuen, nire seme bat gurekin genuela, bertan pasatuz eguna.

1981. urtean Berako Udalak Julio Caro Barojari omenaldi bat eskaini zion, eta Juliori erantzun ona emanez, omenaldi honetan partaide izan nintzen On Jose Migelekin batera. Omenaldi haren aurretik ere Itzean egon ginen. Hona hemen On Jose Migelen bigarren ikustaldia Berako etxe kondaraitu honetara. Arratsaldean berriro Itzeara itzuli ginen eta Caro Barojak bere osaba Don Pioren eleberrri edo nobela zenbakitu bana eman zigan.

Baina lehengoratu gaitzen 1975. urtera, Barandiaranek Itzeara egin zuen aurreneko bisitara. Giro benetan goxo batean, elkarrizketan igaro ziren orduak, suak enborra erretzen zuen bitartean. Solasaldi hartan direnak eta ez direnak jorratuaz, euskara ere gai izan genuen. Sasoi hartan euskara idatziaren arazoak bizirik segitzen zuen, xeblebre xamarrek diren haserreak sortuaz.

Julio Caro Baroja, Serafin Baroja idazlearen biloba, ez da batua izenez ezagutzen den euskara idatziaren zale handia izan; baina bai gure hizkuntza honen maitalea. Eta hona nahi nuen heldu.

Oroi ditzagun bere *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina* eta *Observaciones sobre el vascuence y el Fuero General de Navarra*. Gogora dezagun halaber, J.C. Baroja Euskaltzaindikoa dela, Ohorezko euskaltzaina.


Hamaika urtetan zehar *Nazioarteko Eusko Ikaskuntzen Aldizkariaren* (RIEV) zuzendaritzan, neroni errebistaren koordinadore edo bateratzaile bezala lekuko naizela, bertatik eta pertsonalki ezagutzea izan dut Julio Caro Baroja adiskidea nola behin ere ez den izan euskara txokoratzearen aldekoa.

Itzeako jakintsu honek bultzatu ninduen doktoretza lortzera eta bera izan nuen tesiaren zuzendaria. Mahaiburuko bi irakasle euskaraz ezjakinak izan arren, Julio Caroren esanari jarraituaz nire mintzaldia (defentsa) euskaraz eta gatzelaniaz izan zen. Honela atsegin eman nion maisu zuzendariak kezkarik gabe azaldu zuen nahiari.

Gure herrian, Julio Caro Barojaren iritzi batzuk zerbait, gehiegi, eztabaida-
tuak izan dira eta lau haizetara adieraziak; baina euskaraganako bere begi-

rune eta maitasuna ixilean eta ahaztu samarra geratzen da. Gauzak honela dira. Eta hemen egokia iruditzen zait esaera zahar bat oroitzea: *Bakoitzari berea, Jainkoaren legea*.

Julio Caro Baroja adiskide maite eta ospetsuari, zorionak eta besarkada bero bat.



Julio Caro Barojaren inguruan, bizipen oroigarriak / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País = Euskalerraren Adiskideen Elkarte. Homenaje a Julio Caro Baroja* . - Donostia-San Sebastián: Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País. - Vol. I tomo 2 (1994), p. 395-397